

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

### ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

#### **44/2019 Mozioa, azaroaren 24koa, emakumeenganako indarkeriaren aurkako jarduketan inguruan**

Arabako Batzar Nagusiek, 2019ko azaroaren 24an egindako osoko bilkuran, ondorengo mozioa onetsi zuten:

44/2019 Mozioa, azaroaren 24koa, emakumeenganako indarkeriaren aurkako jarduketan inguruan.

1. Arabako Batzar Nagusiek adierazten dute emakumeenganako indarkeriaren sustraiak honako hauek direla: gizonen eta emakumeen arteko botere-harremanen desberdintasun historikoa; eta emakumeenganako diskriminazio orokorra, bai sektore publikoan, bai sektore pribatuan.

2. Arabako Batzar Nagusiek adierazten dute emakumeen aurka gauzatzen den indarkeria giza eskubideen urraketa bat dela, eta ondorioz, Arabako erakundeek eta gizarteak, orokorrean, indarkeria horren erauzketa lehenetsi behar dutela.

3. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote gauzatu ditzala berdintasunaren eta indarkeria matxistaren inguruko eta biztanleria osoari zuzendutako sentsibilizazio-eta prebentzio-programak. Era berean, eskatzen diote diseinatu eta inplementatu dezala, ALHko gainerako erakundeekin lankidetzan, politikarientzako eta teknikarientzako formakuntza-programa bat, erakunde-jardueretan genero-ikuspegia txertatzeko.

4. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote sustatu ditzala, LAIA formakuntza-programaren esparruan, mutilei eta gizonei zuzendutako jarduerak eta autodefentsa feministarako lantegiak.

5. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote eskualde mailako protokoloak gauzatu ditzala, indarkeria matxistako biktimen prebentzioan, horiek hautematean eta horiekin esku hartzean inplikaturako zerbitzu eta eragile guztien funtzioak eta koordinazio-mekanismoak definitzeko, eta funtzio eta mekanismo horiek indarkeria matxistaren ondoriozko jarduera guztietan oinarri eta laguntza moduan erabiltzeko.

6. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote indarkeriaren ondoriozko emakume biktimei abegi integrala emateko zerbitzua bultzatzea, eta gainerako erakundeekin batera koordinatzea, laguntza, babesa, laguntza psikologikoa, laguntza legala, etxebizitza eta adingabekoekiko arreta emateko ekintzak.

7. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote sakontasunez ezagutu ditzala zahurgarritasun maila handiagoa eta hainbat diskriminazio-mota izaten dizuten emakume-taldeek jasaten dizuten indarkeria-motak, eta burutzen diren hainbat ekimenetan bereziki kontuan izan ditzala emakume horien seme-alaben eta neska adingabekoen egoerak.

8. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote artatu dezala emakume nagusien kolektiboaren arazo berezia, non indarkeria ikusezinagoa eta normalizatuagoa izaten den; hortaz, eskatzen diote hainbat ekintza ezarri ditzala, indarkeria oso kronifikatua eta ezaugarri oso zehatzetako jasaten duten emakumeak hautemateko eta esku hartzeko sareak zabaldu ahal izateko.

9. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote genero-indarkeriaren arloko berehalako arreta emateko zentrozen eboluzioa azter dezala, zentro horietako plantillak handitzeko, hala badagokio.

10. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote etengabe aztertu eta berrikus ditzala genero-indarkeriaren alorreko politikak, sortzen diren eta aldatzen ari diren premietara egokitu daitezzen, eta batik bat nabarmendu ditzala Arabako eskualdeek –bereziki, Arabako nekazaritza-eremuak– genero-indarkeriaren alorrean izan ditzaketen premiak, laguntza teknikoari dagokionez.

11. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote genero-ikuspegia sar dezala administrazio-jardueran, eta bereziki sakondu dezala generoarekin zerikusi handia duten aurrekontuen gaineko lana, ulertzen baita azterketa horrek hobetzen lagun ditzakeela berdintasunaren gaineko politika publikoen jarduerak.

12. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote memoria kolektiboa eta memoria historikoa eraiki ditzala indarkeria matxisten biktimen eta bizirik atera direnen gainean, konponketa sinbolikorako eta aintzatespenerako hainbat ekintza barne hartuz –esaterako, erakunde-ekintzak edo oroimenezko elementuak–, indarkeria horien emakume biktimek duten erreparazio-eskubidearen aintzatespenean urratsak egiten jarraitzeko.

13. Arabako Batzar Nagusiek Eusko Jaurlaritzari eskatzen diote garatzen jarrai ditzala genero-indarkeriaren emakume biktimak prebenitzeko, horiei arreta emateko eta horiek babes-teko zuzendutako programak bere eskumenen eremuan, baita berdintasuna, eta indarkeria matxistarik gabeko bizitzak izateko hezkuntza-programak ere.

14. Arabako Batzar Nagusiek aintzatesi egiten dute mugimendu feministak eta emakume-elkarteek indarkeria matxistaren aurkako borrokan duten lidergoa, eta borroka feministarekin duten konpromisoa berresten dute, hori baita gizarte demokratiko eta indarkeriarik gabeko bat eraikitze bide nagusia.

15. Arabako Batzar Nagusiek berretsi egiten dute emakumeen eskubideekin duten konpromisoa, azaroaren 25a aintzatesten dute emakumeenganako indarkeriaren aurkako borrokaren data enblematiko moduan, bat egiten dute deitu diren mobilizazioekin, eta gizarte osoari dei egiten diote mobilizazio horietan parte har dezaten.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko azaroaren 24a

*Presidentea*

**PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA**